



Udare-pastela izpilikuarekin

Frantses film honek argi eta garbi frogatzen du frantses zinema ongi dabilela eta gure pantailetan gainezka egiten duen indarkeria ergelaz eta gezurrezko iruditeriaz harago begiratzen jakin, badakiela.

Bere oinarrian sentimenduzko harremanak dituen komedia bat da, non narratzen baitira era umoretsu batez Asperger-en sindromeak jota dagoen gizon baten menturak, probidentziak eskaini nahi izan dion harreman sentimentalari horrenbestez uko egin gabe. Hortik aurrera, oso jostariak, komikoak eta gizatiarrak diren hainbat eta hainbat egoera kateatzen dira, zeinek lagundu egiten baitigute

gizakion bagajearekin topo egiten, arrazoi ilun eta ziztrinengatik geure buruari askotan ezkututzen saiatzen garen bagaje hori bera.

Giza harremanen munduaz ari naiz, eta zergatik ez, sentimenduen munduaz ere bai. Mundu hori hor dago, gizabanako bakoitzaren zati da, eta eskuarki, harreman sentimental edo bikote-harreman baten osagarri izan ohi da, besterik gabe. Sentimenduen mundua “ulertzen ez duten” pertsonak gatazkatsuak izan ohi dira, munduarekin erlazionatzeko arazoak izaten dituzte askotan, “soziopata” samarrak ere izaten dira, eta kasurik txarrean kalera ateratzen amaitzen dira beisbol-bate bat eskuan astinduz, ulertu ezin duten –eta ondorioz, gorroto duten– gauza oro apurtu nahian.

Mota honetako filmak epaitzeko orduan, kaskamotzen antzera jokatzeko duten “kritikariak” badaude. Laudoriozko hitzak baino ez dituzte erabiltzen “Herrialderik ez jende zaharrarentzat” eta antzeko filmak juzgatzeko orduan. Baina sentimenduzko harremanen aurrean jartzen zaituen film bat ikustea gertatzen zaienean, beren eserleketan urduri mugitzen hasten dira, faltan botatzen dituzte karate-erakustaldi on batzuk, doako indarkeriak eta ankerkeriak, eta azken batean, jende kaxkarra ezaugarritu ohi duten ergelkeria horiek guztiak dira faltan botatzen dituztenak.

10 puntutatik 7 gutxienez lasai asko irabaz lezakeen film bat da. Ez dago horren gaizki, filmik gehienak puntuazio horretatik behera egon ohi direla kontuan hartuta.

Nolanahi ere, giza harremanen mundua onartzeko arazoak baldin badituzu, ez ezazu film hau ikus. Zoaz zonbi-film bat ikustera. Baina gizakia sentitzearen beldur ez bazara, sentimenduen munduaz lotsatzen ez bazara, pertsona guztiok bikote-harreman bat izan beharrean gaudela onartzeko konplexurik ez baduzu –denok dauzkagun zulo existentzialak eta hil ala biziko larriminak estaltzeko, e.a.–, kasu horretan, bota iezaiozu begirada bat film honi, ziur bainago ez dizula huts egingo.

Ea ulertzen nauzuen, horrekin ez dut esan nahi momentu jakin batean niri ere gustatzen ez zaidala indarkeriazko film bat ikustea; adibidez, Tarantinoren film bat, edo “Herrialderik ez jende zaharrarentzat”, edo Matrix, edo gerrako filmak, edo western bat,

edota zombi-film bat ere bai –zergatik ez?–, eta abar, eta abar. Baina batere normala iruditzen ez zaidana da pertsona batzuek ezezko biribila emateari film bat ikusteari soil-soilik “sentimenduzko harreman bat” ardatz duelako. Jarrera hori susmagarritzat jotzen dut. Bai, ondo aditu duzue: susmagarritzat.